

Metrikaren eskakizunez, [gajštwa] bezalako hainbat sineseri egin behar da, Etxeparegan adib.

Singularra

singular / singulier / singular

Edo «mugatu bakarra» ere deitua.

Hona hemen izen-→kategoriarri datxekion gramatika-→kasu bat.

→Adiera desberdin batzu izan ditzake:

1. zenbatgarri diren izenetan, bakuntasuna adierazteko: *bat* (= bakar bat)/*bat baino gehiago*.

2. Multzo-izenetan, barrenean aniztasuna izanik ere.

3. zenbatgarri ez diren →izenetan, →oposiziorik ezaren irudi gisa.

Esate baterako:

1. *zakurra* (eta ez zakurrak)

2. *sagardia* (nahiz sagarrondo-multzoa izan)

3. *haurra* (edozein haur) = *haurra jostaria da*

Gramatika →sortzailean [+ sing] →ezaugarria datxekio.

Sinkopa

sincoipa / syncope / syncope

Hizkuntzen eboluzioan oso maiz gertatzen den fenomeno da sinkopa eta →hitz baten barruan →fonema bat edo batzu desagertzean datza. →Bokalak eta →silaba tonugabeak erortzen dira bereziki.

Sinkretismoa

sincretismo / syncretisme / syncretism

Honetan datza sinkretismo izenaz ezagutzen den fenomeno: bi elementu, jatorriz desberdinak edo analisiak berezi egiten dituenak, forma bakar batean nahasita agertzen dira, itxuraz biak bereztea ezinezkoa gertatzen delarik. →Indoeuropar hizkuntzei dagokienez, →kasuen sinkretismoaz hitzegiten da: hastapeneko kasu-zerrendan, →nominatiboaz, →bokatiboaz, →akusatiboaz, →genitiboaz eta →datiboaz gainera, →ablatibo bat (aldenketa edo urruntzea adierazten zuena), lokatibo bat (nor, non zegoen adierazten zuena) eta →instrumental bat (zeren bitartez burutzen zen →ekintza adierazten zuena) ere sartzen zirela pentsatzera garamatza gra-

matika konparatuak: latinak, instrumentalarren zenbait forma eta erabilera guztiak eta lokatiboaren erabilera gehienak *ablatibo* deritzan kasuaren barruan bildu ditu sinkretismoz; grekoak ere, sinkretismoz, instrumentala eta lokatiboia ia osorik datiboaren barruan bildu zituen, ablatibo hertsiki deituak genitiboarekin bat egiten zuen bitartean.

Sinkronia

Ik. DIAKRONIA ETA EUROPAKO ESTRUKTURALISMOA

Sinonimoa

sinónimo / synonyme / synonym

Zentzu bera, edo beretsua, eta forma desberdinak dituzten →hitzak dira sinonimoak. Hau da sinonimiaren definizio zabalak; honek bide ematen die hiztegiei, zenbait →textuingurutan beste baten ordeaz jar daitezkeen hitzen zerrenda luzeak emateko. Gaurko teoria semantikoan ez dira sinonimotzat hartzen bi unitate, ez badute zentzu estruktural bera, analisi zorrotz baten bidez mugatzen dena.


Sinplea

Ik. BAKUNA

Sintagma

Bai sintagmaren definizioa, bai hartzen dituen izendapenak, onartua izan den gramatika-→ereduaren arabera dira (ikus *banaketa*). Oraingo honetan, ahalik eta definiziorik markagabeena ematen saiatuko gara. Perpaus bat ez da izan hitzak (→lexemak) katemaila liriatekeen katea huts bat, baizik-eta barne-egitura ere baduena. Aurreranzko hitzen antolaketan agertzen da hori, besteak beste, eta biderdiko multzo horietan ere barne-egitura bat agertzen da. Tarte-multzo horiek, berebat, beste hitz-multzoekiko harreman sintaktikoak lotzen dituzte.

Morfologiari dagozkion alderdiak alde batera utziz, aurreranzko egituraketa hori honetara eman daiteke:



Modu horretara, goitik ala behetik ari garen arabera, urraska segmentatzen edo eraikitzen dugu perpausa. Gauza ageria da, jakina, era horretara egiturazko azalpen osorik ez dugula burutzen. Horretarako lexema edo hitz-multzo (sintagma) bakoitza zein hiztegi- \rightarrow kategoriari dagokion adierazi behar genuke; perpaus bat beste biga edo gehiagorekin lotzen duen eragiketa-mota nolakoa den ere bai, baita emaitzaren kategoria eta bere gaineko osagai-sintagma bakoitzak duen \rightarrow funtzioa ere.

Hau guztia, ordea, ezin daiteke egin, aldezturik sintagma deritzon unitate hori kontutan hartu gabe.

Ik. PARADIGMA

Txillardegi

Sintaxia

Betidanik berezi izan dira gramatiketan bi atal nagusi: morfologia eta sintaxia.

Perpaus barnean \rightarrow hitzek elkarren artean dituzten harremanak aztertzen dituen gramatika-atalari Apolonio Discolo delakoak jarri zion *sintaxi* izena. Orduarte gudu hitza zen, era berezian taxututako gudari talde bati zegokiona. Gero, gramatikariek, metafora bidez edo, hitzak

eratzeko, letra edo \rightarrow soinuen arteko el-karketari deitu zioten.

Sintaxi tradizionala perpaus barnean hitzek hartzen zuten ordenamendu berezia, edo hitz horien arteko \rightarrow komunztagudu hitza zen, era berezian taxututako gudari talde bati zegokiona. Gero, gra perpausaren erregularitasunen multzoa zen. Gauzak horrela pentsatzea, perpaus ez-erregularrak edo ez-osoak bazirela presuposatzea da. Perpaus ez-erregularrok erregularrago edo oinarrizkoagotzat jotzen ziren perpausetatik abiatuz esplika zitezkeen. Ez-erregularitasun hauek «joserker-figura» izenez, sailkatu eta esplika-tu zituen Port Royal-eko *Gramatikak*.

Sintaxiaren langaia, beraz, tradizional-ki, hitzak dira baina perpaus barnean gertatzen diren elkarketez eta elkarren arteko erlazioez arduratzen da. Sintaxiari dagozkio, aintzinatik, komunztadura eta \rightarrow eraenketa kontuak. Port Royal-eko *Gramatikak* «komunztadurazko sintaxia eta eraenketa-sintaxia» bereizten zituen. Lehenbizikoa gehienbat berdintsua da ia hizkuntza guztietan. Bestea, berriz, ia ia arbitrarioa da eta horregatik oso desberdina gertatzen da hizkuntza guztietan.

Sintaxiari dagokio, beraz, baita morfolo-giak ematen dizkigun formak nola